

---

# ATRAPA EGUNA

---

Nerea Arrien



erein **AUSKA** 

ATRAPA EGUNA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2017ko azaroan*

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Estibalitz Jalón

© Nerea Arrien

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-245-2

L. G.: SS-1220/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

[edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

NEREA ARRIEN

# ATRAPA EGUNA

Marrazkiak: Estibalitz Jalón

erein **AUSKA** 

# I

**G**ora. Behera. Ezker. Eskuin. Salto. Hiru bizi ditut. Hilezkorra naiz. Itzulipurdi bat. Hogeita hamar segundo gehiago. Niretzat. Izaki hori txikiarentzat. Minions-arentzat. Manex280-arentzat. Banoa. Argiaren abiadan. Tabletaren zeruertzerantz. Bai. Lortu behar dut. Beste 60 segundo gehiago. Denboraren jabearentzat. Heroi digitalarentzat. Erdiko behatza pantailaren gainean patinatzen. Behatz lodiaz botoia etengabe sakatzen. Neurea da!! Minions nekezinarena. Platano biltzailearena. Bai. Bai. Hamar banana. Bizi berri bat. Paradisu birtuala. Hortxe da!! Banoaaa. Emozioa. Izerdia eskuan. Irrist. Irristtt. Txirristtt. Badoooa.

Lurrera.

Tableta. Minions-a. Manex280a. Hiru biziak.

Pantailaren kristal apurtuak ezin berpiztu dituenak.

*On. Off. On. Off.*

Denak berdin jarraitzen du. Pantailak beltz. Izar bako gau bat baino beltzago. Kargatzailera entxufatu dut, egoera larrian dauden gaixoek ospitaleko aparatuetara egiten duten bezala. Baina tabletaren bihotzak ez du taupadarik. Eta neurea ere, moteltzen hasi da. Azkenaldian, laukizuzen hau izan baita nire konpainia bakarra. Nire *zibermaitalea*. Harentzat baino ez nintzen heroia. Bertan baino ez nuen bizitza aurkitzen. Baten faltan bi, edo hiru, berari oparitutako denboraren arabera. Eta orain, erpinez betetako bere aurpegi apurtuan ikus dezaket nirea. Islatuta. Negarrez. Elize-tako santu horiek bezala: paradisuako atea igarotzear daudenean, bekatu egiten harrapatu dituztenak.

Desesperaturik, astindu egin dut. Botoiak sakatu. Banaka. Denak batera. Azken astindu bat, eta amorruez, erantzuten ez duela ikusita, lurrera bota dut. Hil egin dut, eta, berarekin batera, Romeo eta Julieta bitxi batzuk garela jabetu, eta neure buruaz beste egin dudala ulertu dut.

Akabo udako oporrak.

Garrasi egin dut. Uste dut, lehenengoz nire bizitzan. Telefonoz hitz egiten egon da ama, eta ordenagailuan aita. Ez dira ezertaz jabetu. Azkenaldian, ohikoa den bezala.

Bizitza birtualari dolua



Baina aitona bai.

*Jesusmariatajose* sartu baita ateko zirrikitu batetik, eta berba horien atzetik aitona datorrela ondorioztatu dut.

–Zer gertatu da hemen, Manex? –bota dit aitonak, burua eskuetan bilduta.

–Tableta aitona. Izorratu da. Akabatu. Hil!! –esan diot negar batean.

–Bueno, bueno... hori baino ez bada.

–Hau zorigaitza, aitona!

–Zer zorigaitz eta zer tragedia, Manex! Bota ezak traste zahar hori zakarrontzira eta *atrapa eguna!*

*Atrapa eguna, atrapa eguna.* Aitona eta bere esamolde zaharrak. Neu uler nazaten nahi dut, behingoz! Eta beste behin ere, neuk ulertu behar haiek!



## II

**A**mona Petra hil zenean, aitona gurekin bizitzera etorri zen. Ordutik, logela berean egiten dugu lo.

Logela ez da aitonarekin konpartitzen dudana gauza bakarra. Ordu txikitako zurrustadak edo ametsetan esaten ditudan sekretuak. Bada, aitonaren eta bion artean, gauza bitxi ikusezin bat, ezin dudana erraz azaldu, bakarrik egoten garen ordu guztiek ekarri digutena. Hitzik gabeko halako kode bat. Esan behar ez duguna jakinarazten diguna.

Adibidez, gauetako bion afizioak. Amak eta aitak ezagutzen ez dituztenak eta ezagutuko ez dituztenak. Aitonak ez du ahoa irekiko, ezta nik ere. Eta ez aitaren eta amaren aurrean mutu egoteko eskatu diodalako. Ez du esango eta kito. Ez dakit ulertzen didazuen.

Lokartu baino lehen, aitonak zigarro bat erretzen du logelako klandestinitatean, medikuak debekatu dion arren. Gero, indiarren eta bakeroen nobela zahar

horiek irakurtzen ditu, argia itzalita eta liburuaren orrietatik zintzilikatuta linternatxo txiki bat jarrita. Ni, berriz, tabletarekin ibiltzen naiz jolasean, aitonak linternatxoa itzaltzen duen arte. Erritual zaleak gara, printze txikiaren azeria bezalakoak.

Baina, bart, tableta hil zaidan egunean, bukatu zait errituala niri. Eta aitonak bere horiek egin bazituen ere, ni egonezin nengoen: tabakoaren usaina nazkagarria, linternaren argia diskotekakoa bezain psikodelikoa, eta, aitonak orri bat pasatzen zuenean, zazpigarren zalditeria osoa liburutik troskan atera behar zela iruditzen zitzaidan. Indiarren geziak ohe batetik bestera... Hitz batean, denak egiten zidan traba.

Hala moduz egin dut lo, bideo jokoko zulo guztietatik erori naiz amets gaiztoetan. Bizi guztiak galdu eta denbora agortu dut amen batean. Horrekin batera, iratzargailuaren txirrinak jo du, amaiera heldu zaidala edo, auskalo, jakingo ez banu bezala, udako oporrekin batera, bizipoza ematen didan gauza bakarra joan zaidala ohartarazteko.

Gosaritan, mugikorrari begirik kendu gabe eman dizkit amak egun onak, eta aitak badu lana hashtag-en atzeko zentzugabekeriak idazten. Beraz, nire begi-

-zuloen tamainari eta tabletaren prezioari zor zaion arreta eskainiko ez dioten konbentzimenduarekin bota diet berria:

–Tableta apurtu zait.

Esan bezala, inork ez dit kasurik egin. Aitonak, orduan, katilurekin mahaian kolpe bat eman, eta esan berri dudana errepikatu du:

–Mutikoari tableta izorratu zaiola.

–Bada, ikasi beharko du gauzak behar bezala zaintzen, ez diot beste bat erosiko eta –bota du amak mugikorretik begiak altxatu gabe.

–Esan nizun atzo, Manex, ahaztu traste zahar hori eta *atrapa eguna!* –begiratu dit aitonak, sorbaldan kolpetxo batzuk emanek. Eskertu diot, gure kode isil horretan. Gurasoen arretarik eza konpentsatzen duten laztan antzekoak iruditu zaizkidalako.

–Baina zer demontre esan nahi du *atrapa eguna* horrek? –Aitonari bakarrik zuzendu beharrean, amari eta aitari begiratu diet, ea, behingoz, ikusten nauten!

Inork ez du ezer esan, eta, orduan, aitonak betaurrekoak jaitsi ditu sudur puntara, eta betaurrekoen gainetik atera ditu begiak. Kristalek egia ezkututzen diotela bermatu nahi izango balu bezala. Baina, azkenean, sinetsi behar izan du kristalek esaten diotena,

begiek ikusi duten berbera izan baita: kasu egiten ez duten guraso pareak.

–Manex, *eguna atrapatzen* duzunean, neuk erosiko dizut tableta. *Atrapatu*, etorri eta kontatu aitona zaharrari.

Eta familia honetan bat gehiago izateko trastea berreskuratu dezakedala ulertzean, begietatik atera zaidan argiak begi-zuloen gaua iratzarri du.